

la perfumería

de Mercadona

2016KO UDAZKENA

ESTREINATU
DENBORALDIA

*Azala eta ilea
suspertzeko
tratamendu
intentsiboa*

BERRIRO
ESKOLARA
Adi, prest... ja!

EZPAINAK *eta*
MASAILAK
udazkeneko bertsioan
Egia bihurtu zure ametsak!

FIJO

LABIOS deliplus
COLOR



**EZPAINETARAKO
FINKATZAILE BIKOITZA
KOLOREA ETA DISTIRA**

01 ZK.
NUDE

02 ZK.
KOBREA

03 ZK.
ARROSA

04 ZK.
GORRIA

05 ZK.
PETALOA

*Ezpain perfektuak
egun osoan!*

AURKIBIDEA

04 **Estreinatu denboraldia**

Uda pasatu ondoren, azalak eta ileak sakon elikatzeko tratamendu bat behar dute. Orbanak, lehortasuna eta tonu apala aurpegian; ile lehor eta hauskorra. Indarberritu itzazu, eta emaezu itxurarik onena.

16 **Look-aldaketa**

Itzal berde metalizatua, delineatzaile beixa begi barrutik, eta kolore-ukitu bat betileen puntan. Begirada zirraragarriak!

18 **Dreams**

Ezpain eta masailak udazken-giroan hiru emakume desberdinetarako. Aurkitu denboraldiko modako makillajea, eta hasi zure ametsak egia bihurtzen!

24 **Bonjour**

Jantzi zure azazkalak paristarrek berezko duten sedukzio-kutsuaz, kolore-sorta dotore batez, eta jokatu zure ezpaineekin, zenbait motatako testura eta tonuak erabiliz, bat etorri edo kontrastea bilatuz.

28 **Zeure burua hobeto ikusteko**

Working-giroko hiru look zure edertasuna indartzeko. Sentitu eder zeure burua, betaurrekoekin zein gabe.

32 **Berriro eskolara**

*Adi, prest... ja!
Ikasturte berria hasteko behar duten guztia.*

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Polígono Industrial Fuente del Jarro
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Espazio-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA, SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe osorik edo partzialki erabiltzea eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak ere.



A close-up portrait of a woman with light skin and striking blue eyes. She has two thick, white, cream-like smudges on her cheeks, one on each side. Her hair is pulled back, and she is wearing a dark, possibly black, garment. The background is a soft, out-of-focus light color.

ESTREINATU *denboraldia*

*Uda pasatu ondoren,
azalak eta ileak sakon
elikatzeke tratamendu
bat behar dute.*

*Orbanak, lehortasuna
eta tonu apala
aurpegian; ile lehor
eta hauskorra.*

*Indarberritu itzazu,
eta emaezu
itxurarik onena.*

KREMA BAT AZAL-MOTA BAKOITZERAKO

Badakizu zer azal-mota duzun?
Azala zaintzeko,
garrantzitsuena azala ezagutzea da.
Identifika ezazu zer azal-mota duzun:
koipetsua, lehorra, mistoa edo sentikorra;
trata ezazu kosmetiko egokiekin, eta
manten ezazu beti ondo hidratatua.

la perfumería

AZAL LEHORRA

Hauek dira azal lehorren ezaugarriak: etengabe tenka dagoelako sentrazioa, hidratazio falta eta keinu-marrak sortzeko joera. Era horretako azaletan, produktu biziki elikatzaileak bilatu behar dira, testura hidratatzaile eta aberatsekoak, konfort-sentrazioa ematen dutenak.

AZAL LEHORRETARAKO EDERTASUN-ERRUTINA

1

Garbiketak, aldi berean, hidratatu egin behar du. **Aurpegiko antiage krema garbigarri txori-larrosadunak** birsortu eta elikatu egiten du azala, eta zahartzearen kontra babestu.

2

Luxe Caviar begi-inguruetarako kremak zimurren, zahartzearen eta begipeen aurkako efektua du, azalari tentetasuna eta argitasuna emateaz gainera. Haren *lifting* efektuak leundu egiten ditu, pixkanaka, keinu-marrak.

3

Luxe Caviar Reaffirmant aurpegiko kremak bitamina-, mineral- eta proteina-dosi gehigarri bat ematen die aurpegiari eta lepoari. Eman ezazu egunez eta gauzez azal elastiko eta argitsu bat, gazteago bat, lortzeko.





AZAL SENTIKORRA

Azal sentikorrek aise erreakzionatzen du muturreko tenperaturen aurrean. Azal ahula da; tenkatasun-eta deshidratazio-sentsazioa dakar, eta azkura, erremina, gorriuneak eta ezkatatzeak eragitera ere irits daiteke. Horregatik, testura leuneko produktuak behar ditu, hidratatu eta baretuko dutenak eta ongizate-sentsazioa emango diotenak.

AZAL SENTIKORRETARAKO EDERTASUN-ERRUTINA

1

Makillajea kendu eta betazalak, betileak eta aurpegia urrats bakar batean eta leunki garbitu nahi izanez gero, probatu ezazu **ur garbitzaile mizelarra**, agente aktibo baretzaile eta hidratatzailez aberastua. Haren mizelek imanak balira bezala eramaten dute zikinkeria, eta garbi, fresko eta goxo uzten dute azala.

2

Olo-urak freskatu egiten du azala, eta saihestu egiten du tenperatura-aldaketek eragindako tenkatasun-edo lehortasun-sentsazioa. Erabil ezazu egunero, garbitu ondoren eta krema hidratatzailea eman aurretik.

3

Azal sentikorrak aktibo lasaigarriak dituen krema bat behar du, hotzak, haizeak eta bat-bateko tenperatura-aldaketek eragindako narritadurak eta beste eragozpen batzuk saihesteko. Hidrata ezazu aurpegia egunero **Hidra-sensitive kremarekin**. Tenkatasuna, azkurak eta ezkatatze txikiak arintzen ditu, eta egun osora hedatzen du konfort-sentsazioa.

Gogoan izan: azal sentikorra hobeto zaintzeko, beharrezkoa duzu elikadura orekatua eta osasungarria, eta ahal den gehiena saihestu behar dituzu kafea, janari minak eta alkohola.

4

Urteko sasoi honetan, zure edertasun-errutinan ezin da falta **txori-larrosaren olio birsortzailea**. Erabil ezazu aurpegiko gune ezkatatuak elikatzeko, edo gaueko birsortzaile intentsibo gisa edo zure aurpegiko kremaren aurretik. Elikatu eta leundu egiten du azala, eta itxura bizkortua itzultzen dio.



ETA GORPUTZERAKO... JOJOBA EDO ARGANA

Jojoba-olioak propietate bikainak ditu, eta onura ugari ematen dio azalari: leuntzea, elikatzea, suspertzea. Argan-olioa urre likidotzat hartzen da herrialde batzuetan, azala elikatu eta hidratatzeko balio baitu. **Gorputz-krema jojoba-olioduna** eta **nutrizio-krema argan-olioduna**. Aukeratu zure krema, eta zaindu azala udan eguzkipean egon ondoren.





AZAL MISTOA

Haren ezaugarria da koipe-sentsazioa kokotsean eta sudurrean baina masail lehorrak. Batzuetan, azal mistoa azal jatorriz koipetsu bat da denborarekin hidratazioa galdu duena. Badakizu nola zaindu behar duzun? Aukeratu deshidratatzeko joera duten zonak hidratatu bai baina koipeztatzen eta lehortzen ez dituzten produktuak.



AZAL MISTOETARAKO EDERTASUN-ERRUTINA

- 1 Azala zaintzeko oinarria garbiketa da. Ondo garbitu behar da egunean bitan: goizean eta gauean. Makillajerik ez badaramazu ere, aurpegian metatu den lohitasuna eta zikinkeria kendu behar duzu. **Ur-gel garbitzaileak** leunki garbitzen eta desmakillatzen du, eta azala fresko eta aratz uzten du, hidratatzeko prest.
- 2 Egunean hamar bat mila aldiz ixten ditugu begiak, eta begien inguruko azal fina ahuldu egiten da. Keinu-marra txikiak eta neke-aztarnak agertzen dira haren inguruan. Trata ezazu zona hori **Eguneroko Kosmetikako begi-inguruetarako kremarekin**, zimurrak agertzeari aurrea hartzeko eta begizulo eta begipeak arintzeko. Haren nekearen aurkako efektuak begirada suspertzen du.
- 3 **Adinaren aurkako kremak kolagenoa eta silanola ditu**, eta bolumena eta tentetasuna ematen du kolagenoari esker. Silanolak efektu suspertzailea eta birsortzailea du. Zahartzearen zantzuei aurre egiten die, edo, halakorik ez baduzu, haiek agertzea atzeratzen du.



AZAL KOIPETSUA

Azal koipetsu batek ezaugarri hauek ditu: poro dilatatuak; distirak, batez ere T zonan (kopeta, sudurra eta kokotsa); koipe-sentsazio bat, egunak aurrera joan ahala areagotuz joaten dena; eta zaldarrak eta lohitasunak agertzeko joera.

Nola zaindu? Koipe-sentsaziorik uzten ez duten testura arineko kremekin, distirei aurre egiteko eta puntu beltzak eta zaldarrak eragozteko.

AZAL KOIPETSUETARAKO EDERTASUN-ERRUTINA

1

Astean behin edo bitan, erabil ezazu **oil free esfoliatzaile desinkrustatzailea**. **Gogoan izan:** ez erabili produktu gogorak koipea hobeto ezabatuko dutelakoan, zeren eta kontrako efektua lortuko baituzu; azalak, koipe-galerari erantzuteko, koipe gehiago sortuko du.



2

Oil free gel garbitzaile araztaileak berriazko formula bat du azal koipetsua zaindu eta garbitzeko. Batzuetan, azal koipetsua lodiagoa da, baina saia zaitez azala ez igurzten eta ez narrititzen garbitzen duzun bitartean. Eman xaboa, eta lehortu ezazu emeki.

4

Azal koipetsuek gainerako azal-moten hidratazio-behar bera dute, baina berriazko produktuak erabili behar dira hidratatu eta akabera matea emateko, eta koipe-sentsazioa uzten ez duen testura arin bat lortzeko. **Oil free fluido hidratatzaileak** koipearen ekoizpena erregulatzen du, eta behar duen hidratazioa ematen dio aurpegiari.

3

Aurpegiaren garbiketa osatzeko, **oil free lozio garbigarria** duzu. Haren jarduera lehorgarri eta araztaileak puntu beltzak eta zaldarrak agertzea eragozten du. Itxi egiten ditu poro dilatatuak, eta distirak murrizten.

5

Oil free gel lehorgarri zuzentzailea zure aliatua izango da pikortatxo gorrotagarrien aurka; noiznahi erabil dezakezu, baita makillajearen gainean ere. Haren formulak murriztu eta lehortu egiten ditu zaldarrak.

EZAGUTU AZAL-MOTA GUZTIETARAKO AURPEGI-GARBIKETAKO LERRO BERRIA

Aurpegia garbitzeko esne hidratatzailea.

Sakon garbitzen du aurpegia, leundu, baretu eta hidratatu egiten du. Ken itzazu makillaje-hondarrak betazal eta betiletatik **begietako makillajea kentzekoarekin**.

Gel-testura duenez, emeki desmakillatzen du, eta garbitasun-eta ongizate-sentsazioa uzten du. Suspertu eta hidratatu egiten du. Osatu zure edertasun-errutina **aurpegiko suspergarri hidratatzailearekin**. Garbi eta leun utziko dizu azala, hidratatuta eta freskatuta.





Ilea zaintzeko lerroa

ERABATEKO SUSPERTZEA

erakutsi harro zure ilea

Ile lehor eta
hondaturako
maskara.




***gogoan
izan***

Garrantzitsua da
maskara adatsaren
erdialdetik puntetara
aplikatzea, buruko
ile-larrua ukitu
gabe

12 2016KO UDAZKENA

Xanpua, krema
leungarria,
egokitzaile bifasikoa
eta serum erabateko
suspertzea, ile lehor
edo hondatuentzat.
Ilearen barne-egitura
birsortzen dute, eta
sakon elikatzen dute.





NUTRITIVO
PIEL MUY SECA
CON ACEITE DE ARGÁN,
SOJA Y MANTECA DE KARITÉ

gel
DE DUCHA

argán

pH neutro para la piel

Deliplus

GEL DE DUCHA instantáneamente nutritivo
que protege, calma y regenera las pieles
muy secas. Su contenido en aceite de
Argán, Soja y Mantequilla de Karité combate
la sequedad de la piel devolviéndole la
hidratación y nutrición que necesita.

Biziki elikagarria

Deliplus



AURPEGIKO KREMA
**ADINAREN
AURKAKOA**
KOLAGENOA
+ SILANOLA

Zahartzearen zantzuei aurre egiten die, azalaren barne-egitura indartzen eta birsortzen lagurtzen duten bi aktibo indartsu hauen bidez: KOLAGENOA eta SILANOLA.

Lortu azal tinkoago, leunago eta gazteago bat.

deliplus

ADI! *azazkalak*

Ez ahaztu azazkalak ere babestu, elikatu eta oneratzeari; urtaro-aldaketak haiei ere eragiten die.

Bost batean oinarri bitaminadunak azazkala hidratatu eta indartu egiten du, distira ematen dio, horitzea saihesten du, eta kolorea luzaroz mantentzen du.

Bitamina-olioak azazkalak eta kutikulak elikatzen ditu.

Azazkal hauskorrenetarako, **gogortzaileak** azazkalak gogor eta osasuntsu haz daitezela laguntzen du, eta, gainera, koloregabetzea eragozten du.

Oinarri leuntzaileak ildoa leuntzen ditu, antioxidatzailea eta hidratatzailea da, eta koloregabetzetik babesten du.

Ilerako eta azazkaletarako kapsula biotinadunek ileak eta azazkalak osasuntsu izaten laguntzen dute.



HARTU BITAMINAK

Kapsula **multibitamina eta mineraldunek** nekea eta akidura murrizten laguntzen dute.

Ginseng, erregina-jele eta C bitaminaz osatutako anpoilek bizitasuna emango dizute urtaro-aldaketan eta oporren ondoren lanera itzultzean.





LOOK- *aldaketa*

Itzal berde metalizatua, delineatzaile beixa begi barrutik, eta kolore-ukitu bat betileen puntan. Begirada zirrargarriak!



**Volumen 4Dimensiones
betile-maskara berdea**

Lortu makillaje dibertigarri bat, zure betileen puntan kolore-ukitu bat emanda zure ohiko maskara beltzaren ondoren.



Begi-arkatz beixa

Testura krematsua du, begiaren barnealdean modu eroso eta delikatuan aplikatzeko. Kolore argiak zabaltasunak ematen dio begiradari, eta akabera oso naturala du.



**Begietako itzal
jumbo-berdea**

Iraupen luzeko testura.





Dreams


Ezpain eta masailak udazken-giroan hiru emakume desberdinetarako. Aurkitu denboraldiko modako makillajea, eta hasi zure ametsak egia bihurtzen!



UDAZKENEKO MAITASUNALDIA

Lur-tonuetako makillaje bat, azal argiko aurpegi baten edertasun naturala indartzeko. Begiak **07 zenbakiko itzal mate marroiarekin** ilunduak daude (1), **09 zenbakiko perla-itzal beixarekin** (2) eta **Longitud Xtrem betile-maskararekin** (3). **Multicolor Dreams** (4) hautsa masailetan. **06 zenbakiko Dreams ezpainetako arkatz natural beixa** (5) eta **02 zenbakiko hydra-color Dreams ezpainetako barra natural beixa** (6).





Maisu-ukitua

Lortu kolore-intentsitate handiagoa ezpainetan hydracolor Dreams barra pintzelarekin aplikatuz.



PINK IZAERA

Beste edertasun-mota bat, azal-tonu ilunagoarekin eta gaztaina-koloreko ilearekin; ia edozein tonu onartzen du ezpainetan. Eman energia eta kolorea udazkeneko egun luzeei begitartea alaitzen duen arrosa bizi batekin. **08 zenbakiko Dreams ezpainetako arkatza** (1) eta **04 zenbakiko hydra-color Dreams ezpainetako barra** (2), biak ala biak arrosa biziak. Gorritu masailak **Multicolor Dreams hautsarekin** (3), eta eman argia begiradari **07 zenbakiko itzal mate marroiarekin** (4) eta **Volumen 4Dimensiones betile-maskarekin** (5).



gomendioa

Konbina itzazu
hydra-color barrak
Dreams arkatzen
edozein tonurekin,
eta lortu ezpain
inbidiagarriak!

AURPEGI GOXOA

Hazpegi oso markatuek makillaje dotore bat behar dute, goxatzeko. Begietan **03 zenbakiko itzal grisa** (1), **01 zenbakiko perla-itzal zuria** (2), **Intense eyeliner-a** (4) eta **Dramatic Volume betile-maskara** (5). Kolore-ukitu bat aurpegian eta masailetan **Multicolor Dreams hautsarekin** (3). Eta ezpainak **05 zenbakiko ezpainetako arkatz** arrosa goxoarekin (6) eta **01 koloreko hydra-color Dreams** arrosa goxoarekin (7) markatzen dira.



udazkena

Bonjourn



Laka 737 zk.
granatea



Laka 736 zk.
amosa



Laka 735 zk.
marrota



Laka 734 zk.
grisa



Laka 733 zk.
urdina



Bonjour

So chic!

733 zenbakiko Bonjour
azazkal-esmalte urdina +
19 zenbakiko ezpainenetako
barra mate ardo-kolorekoa.

*Jantzi zure azazkalak paristarrek
berezko duten sedukzio-kutsuaz,
kolore-sorta dotore batez, eta
jokatu zure ezpainenekin, zenbait
motatako testura eta tonuak
erabiliz, bat etorritz edo
kontrastea bilatuz.*



Grisa & Arrosa

734 zenbakiko Bonjour esmalte grisa + 03 zenbakiko ezpainetako barra arrosa.

Guztia gorriz

737 zenbakiko Bonjour esmalte granatea + 04 zenbakiko Fijo ezpainenako arkatz gorria.





So chic!

733 zenbakiko Bonjour azazkal-esmalte urdina (A) + 19 zenbakiko ezpainetako barra mate ardo-kolorekoa (B).

Grisa & Arrosa

734 zenbakiko Bonjour esmalte grisa (C) + 03 zenbakiko ezpainetako barra arrosa (D).

Guztia gorritz

737 zenbakiko Bonjour esmalte granatea (E) + 04 zenbakiko Fijo ezpainetako arkatz gorria (F).



A



B



C



D



E



F



gomendioa

Ezpainetako Fijo arkatz berriarekin, akabera bat baino gehiago lor daitezke: bat mateagoa, kolorearen partea soilik aplikatuta, eta beste bat distiratsua, kolorearen gainean distira-geruza bat aplikatuta. Bolumen estra bat lortu nahi baduzu, kontrasteak sortu eta argiarekin jokatu, probatu ezazu distira-ukitua ezpainaren erdialdean soilik emanaz.



ZEURE
burua
HOBETO
ikusteko

Working-giroko hiru look
zure edertasuna indartzeko.
Sentitu eder zeure burua,
betaurrekoekin zein gabe.

Begiak ala ezpainak?

Betiko galdera makillatzeko orduan. Unearen arabera eta daramazun betaurreko-armazoiaren arabera izango da beti. Betaurrekoak deigarriak badira, aukeratu beti tonu neutroko makillajea begietan, eta erabili tonu biziagoak ezpainetan. Lortu looka **Ondas Flexibles** **aparrarekin** (1) eta difusorearen laguntzarekin. Begietan, **08 zenbakiko perla-itzal marroia** (2), **04 zenbakiko koral-koloretea** (3) itzal gisa aplikatua, **Intense eyeliner-a** (4) eta **01 zenbakiko Maxi Volumen maskara beltza** (5). Masailetan, **01 zenbakiko kolorete arrosa** (6). **01 zenbakiko Fijo ezpainetako nude kolorekoa** (7). Eta azazkaletan, **berenjena-koloreko gel-efektuko esmaltea** (8) + **Top coat gel-efektukoa** (9).





Eyeliner-aren aldeko apustua

Eyeliner perfektu eta ondo markatua bezalakorik ez dago ikusteko betaurrekoekin batera: intelektuala eta femeninoa. Oraindik praktika handia ez baduzu, difumina ezazu eyeliner-a aplikatu ondoren. Lortu looka ilean **serum-fluido argitzailea** (1) emanaz, erdialdetik puntara. Egin itzazu uhinak kizkurgailuekin, eta markatu itzazu matxardekin 10 bat minutuz. **09 zenbakiko begietako perla-itzala** (2), **Intense eyeliner-a** (3) eta **01 zenbakiko Maxi Volumen betile-maskara beltza** (4). **01 zenbakiko kolorete arrosa** (5), **gel-efektuko azazkal-esmalte txokolate-marroia** (6) + **Top coat gel-efektukoa** (7). Eta looka osatzeko, **03 zenbakiko Fijo ezpagnetako arrosa** (8).



Ezpain gorriak



2



Ezpainak nabarmentzea aukeratuz gero, utzi zure begirada ia biluzik itzal goxo bat eta betiletako maskara erabiliz. Look hau lortzeko, hasteko, aplikatu begietan **03 zenbakiko itzal grisa** (1) eta **01 zenbakiko Maxi Volumen maskara beltza** (2). **04 zenbakiko Fijo** ezpainetako gorria (3) eta **02 zenbakiko kolorete mertxika-kolorekoa** (4) masailetan. Bildu ilea motots informal batean; akabera perfektua lortzeko, finkatu ertzak **argizari distiratsua** erabiliz (5).





5

Betaurrekorik erabiltzen duzu?

Hona hemen makillatzeko gomendio batzuk

- ✓ **Miopia baduzu...** markatu ezazu begien kanpoaldea eyeliner-arekin, begiak handitzeko.
- ✓ **Hipermetropia.** Markatu begiaren barnealdea kontrako efektua lortzeko.
- ✓ Begi-itzal ilunduak eta tonu neutroetakoek **sakontasuna emango diote zure begiradari.**
- ✓ **Defini itzazu zure bekainak.** Betaurrekoen armazoiak bekainetara bideratzen du arreta. Zaindu itzazu, kendu sobran dauden iletxoak eta bete itzazu hutsuneak bekainetako arkatzarekin.
- ✓ **Zuzentzaile argitzaile baten ukitu batek argia** ematen dio beti **zure begiradari.**





Berriro eskolara

Adi, prest... ja!

Ikasturte berria hasteko behar duten guztia.

Ahaztu zorriez

Saihesteko:
zorri-uxagarria.
Tratatze eta
ondo garbitzeko:
xanpu edo **lozio**
pedikulizida, eta
bartz-orrizia.

Zaindu zeure hartzak

Aho-hortzen higiena egokirako oinarriko aholkuak: hartzak egunean hiru aldiz garbitzea, eskuila hiru hilean behin aldatzea eta dentistarenera gutxienez urtean behin joatea. **Haurrentzako hortzetako eskuilak, elektrikoak eta eskuzkoak.**

Haurrek ondo pasatzen dute, eta, aldi berean, hartzak egunero garbitzeko ohitura hartzen dute.

* Oinarrian bentosa duen haurrentzako eskuzko eskuila.




Eguneroko hornigaia

13
bitamina
6 mineral



Deliplus



Ilerako

Ilea zaintzeko kids lerroa: xanpua, egokitzailea, xanpu + egokitzailea 2 batean, ile-nahaspilak askatzeko espraia eta gomina. Garbitu eta orraztu zure seme-alaben ilea, eta ile-nahaspilak askatu. **Frozen ilerako eskuila.**



Haurrentzako hurrinak

Peppa Pig Lola Bunny eta Bugs Bunny. Plastikozko ontzian.



Haur txikientzat

Deliplus pixoihalak eta paper-zapiak.



Gehitu zure defentsak

Haurrentzako erregina-jelezko eta propolizko anpoilak.



TE-ARBOLA



% 100 esentzia-olio purua

dreams

deliplus
COLOR



hydra-color

ezpain-margo gozo
eta hidratatzailea

ezpainak
markatzeko
arkatza
kolore bizia



Osatu zure look-a
kolore
anitzeko hautsa
kolore argitsua

